

2023-2024ko GRAL defentsarako prozedura (Uztaila)

1. **Defentsa egunak uztailak 1- 5** bitartean izango dira Tribunalak zehaztuko duen egun, ordu eta leku zehatzean.
 2. **Ekainaren 14rako: koordinatzaileek** Tribunalak izendatuko dituzte eta Tribunalari jakinaraziko zaie dagokion ikasle zerrenda.
 3. **Ekainaren 17- 23** bitartean **ikasleak** lana eta posterrak webgune bidez gordailuan utzi beharko ditu esteka honen bitartez:
 - a. Lehen Hezkuntzako Graduan: <https://www.ehu.es/es/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/lehen-hezkuntzako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula>
 - b. Haur Hezkuntzako Graduan: <https://www.ehu.es/es/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/haur-hezkuntzako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula>
- ADI! Formularioa bete eta bidaltzean, ikasleak jasoko duen maila gordailua egin izanaren gordekina izango da
- ADI! Ikasleak ezingo du matrikula burutu, ez baditu lana eta posterra webgunetik bidali. Hau ez zaie aplikatzen dagoeneko matrikulaturik dauden ikasleei, gainerako irakasgai guzti-guztiak gaingiduta dituztelako.
4. **Ekainaren 17- 23 artean ikasleak** matrikula egingo du (dagoeneko egina ez badu).
 5. Matrikula burutu ondoren, GAUREn GRALaren atalean, **ikasleak** defentsa eskaera burutu eta defentsarako deialdia aukeratu (UZTAILA) beharko du (ekaina 17- 23 bitartean). **Izenburua aldatu behar bada, ikasleak defentsa eskaera baino lehenago egin beharko du aldaketa.**
 6. **Zuzendariak** defentsa eskaerari erantzun (lanaren izenburua berrikusi, gradu eta minor adierazpena ezabatu behar dira) eta txostena (gure web orriko GRALaren atalean) igoko du GAUR plataforman (**ekainaren 26a** baino lehen).
 7. **Minorreko GRAL koordinatzaileak** ikasleak gordailura bidalitako lana eta posterra dagokion Tribunalari helaraziko dizkio.
 8. **Zuzendariak** bere ikasleei tribunalari buruzko informazioa jakinaraziko die.
 9. **Zuzendariak**, edo **tribunalek**, ikasleei adieraziko diete eguna, ordua eta gela.
 10. **Ekainaren 27- uztailaren 5a** bitartean poster erakusketa orokor eta publikoa egingo da HEFA IIan. Ekainaren 27an posterra Fakultatea irekita dagoen orduetan zintzilikatu ahal izango da, egun horretan zehaztuko den tokian.
 11. **Uztailaren 1, 2, 3, 4 eta 5** egunetan defentsak burutuko dira
 12. **Tribunalak**, ezarritako irizpideen arabera, kalifikazio prozesua burutuko du eta GAUREn argitaratuko du.
 13. **Ohorezko Matrikulen** proposamenak, minor bakoitzeko koordinatzaileari helaraziko zaizkio, uztailaren 10a baino lehen.